

**Zuzendaritza Europarraren gaitzespen Mobilizazio Europarra**  
**Inmigrazioaren Itun Europarraren onespeneren aurkako Manifestua**

---

Beharrezkoa da kanporatze erabakien aurka eta etorkin guztien erregularizazioaren alde, borroka europarra piztea: asiloaren eskubide internazionalaren alde; eraso arrazista eta xenofobo bakoitzaren aurkako berehalako erantzuna emateko; langile etorkinen sindikaltzeko eskubide eskakizuna egiteko; etorkin biztanleriaren eskubide demokratiko, politiko, sozial, erlijioso eta hezkuntza eskubideen defentsan iharduteko; . . . Azken finean, kanporatzeek hondamendi ekonomikoa dakarte, etorkinak beraien herrialdeetara itzuli beharrak, aurrez hartutako zorrak ordaintzeko aukerarik gabe uzten dituzte.

**Deklarazioa:**

**1.-** Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 13. artikuluan jasotako, pertsonen joan-etorri askearen giza eskubidea kriminalizatzen duen, Europar Batasunaren Zuzentarau atzerakor eta gaitzesgarriaren aurkako gure gaitzespen osoa adierazi nahi dugu.

**2.-** Europar Batasunean bizi diren etorkinen jatorrizko lurraldeetako gobernu, partidu politiko, sindikatu eta mugimendu sozialei eskatzen diegu oinarrizko eskubideak urratzen dituen eta xenofobia eta arrazakeria bultzatzen duen politika honen aurka egitea.

**3.-** Kanporatzeak dauden atzerritarrentzako zentroetan dauden etorkinei gure elkartasuna eskaini nahi diegu, inolako deliturik egin gabe askatasun gabe aurkitzen direlako.

**4.-** 2008ko urriaren 14ean, etorkin eta errefuxiatu elkarte denak, mugimendu sozial guztia eta gizarte zibila orokorrean deitzen dugu Jardunaldi Europarrera. Zuzentarau honen aurka, Kanporatzeak dauden atzerritarrentzako zentroen itxieraren alde eta Europar Batasunean bizi diren pertsona guztien eskubideak bermatzearen alde, egun horretan: Ez egin lanik, Ez kontsumitu, Ez erosi, Ez saldu, . . .

**5.-** Europako elkarte demokratiko eta aurrerakoi guztiei deialdia luzatu nahi diegu, Zuzentarau honen aurka mobiliza daitezten, deklarazio hau babestu dezaten eta urriak 14ko jardunaldi honetara atxiki daitezten eskatuz.

**6.- Asilo eta inmigratioaren inguruko beste politika europar bat posible da!!**

**7.-** Migratzaileek jatorrizko lurraldeetako pobrezia gaitzeko eta garapenaren promozioan, eta helmugako lurraldeetako oparotasunean jokatzeko duten papera aintzat hartua eta indartua izan behar da. Garatzen ari diren herrialdeetan eta baita industrializatuetan ere, migrazio internazionalak garapen ekonomikorako estrategia nazional, herrialdeko eta mundialaren parte bihurtu behar dira.

**8.-** Giza eskubideak urratu gabe, asiloa eskatzeko errefuxiatuen eskubidea barne, estatuek elkarlana egin behar dute inmigratio ilegala bideratzeko. Gobernuak langile, sindikatu eta gizarte zibilean kontsulatu behar dute migrazio irregularren gaia.

**9.-** Migratu eta lan merkatu mundialean era seguru eta autorizatu batean sartu behar dira gizon eta emakumeak, jasotzen dituzten Estatu eta gizarteek pertsona hauek eta hauen kompetentziak baloratuz.

**10.-** Diskriminazio ezean eta generoen arteko berdintasunean oinarritu behar den, integrazio prozesua bermatu behar dute autoritate lokal eta nazionalak, langileek eta gizarte zibilak. Integrazio prozesua, migrazio internazionaleri buruzko diskurtso objektibo, publiko, politiko eta mediatiko batean oinarritu behar da.

**11.-** Migratzaile internazionaleri dagokien marko arautzaile eta legala indartua izan behar da, eraginkortasun handiagoarekin tresnatua eta migratzaile guztien giza eskubideak eta lan

---

arauak babesteko aplikatua. Horrela, hau errespetatuz, Estatu eta beste eragile guztiak migrazioaren inguruko gaia era koherente eta kontsekuente baten jorratuko dute.

**12.-** Inmigrazio politikari dagokionez, nazio mailan koherentzia eta gaitasun handiagoa izan behar da, Estatuaren arteko elkarlan eta kontsulta handiagoa bultzatuz. Hau gobernuaren arteko kooperazioa eta elkarrikeria eraginkoragoak izanik lortu behar da, honez gain, mundu mailako elkarte internazionalak kontuan izanda. Ahalegin hauek migrazio internazional eta garapenaren artean dagoen lotura estua ulertuz eta beste ezinbesteko politika batzuk (komertzioa, finantza laguntza, Estatuaren segurtasuna, giza segurtasuna eta Giza Eskubideak) erabiliz gauzatuko dira.